

DIRU ITURRIAK

Ekintzaileak enpresa sortzeko 10.000€ jarri ditugu bazkide bakoizak, hau da, hasierako kapitala 50.000€ izan da. Horretaz gain, bankuari 50.000€-ko mailegua eskatu diogulako 3%-ko interesarekin eta 3 urtetan bueltatzeko.

Gure lokalean konpontzen diren produktuak dira gure diru iturri nagusiak. Gure publizitatean ere (web orrialdean, sare sozialetan...) argi uzten ditugu gure enpresak egiten dituen eginkizunak, baita norekin lan egiten dugun.

Salgaiak saltzeagatik izango ditugu diru iturriak. Dendan dauden prezioak, finkoak izango dira. Gure produktuak, arropa, zapatak, bitxiak, antzinatasunak (altzairuak, apaingarriak...)... izango dira. Produktuen ezaugarrien arabera, prezioa handiagoa edo txikiagoa izango da.

Honen prezioa jartzeko, kontuan izan behar dugu, gutxienez gure ekoizpen-kostuak estaliko dituela eta enpresa errentagarria izateko moduko onura emango digun prezioak jarri behar dugula. Prezioa aldatuko da, produktuaren kalitatea, salmenta-bolumena, pieza bakarra edo lortzeko zaila bada...